

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 4452

*1564/2020 EBAZPENA, urriaren 8koa, Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Ana Belén Díaz Roca andrea aldi baterako izendatzen duten Osakidetza Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuko Digestio Aparatuko Atalburu Sanitario (Endoskopia), lau urteko eperako eta luzatzeko aukerarekin.*

Otsailaren 7koa 228/2020 Ebazpenaren bitartez, deialdia egin zen Osakidetza Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuko Digestio Aparatuko Atalburu Sanitario (Endoskopia) lanpostua lehiaketa bidez betetzeko.

Balorazio Batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Ana Belén Díaz Roca andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetza Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuko Digestio Aparatuko Atalburu Sanitario (Endoskopia).

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin

#### EBAZTEN DUT:

**Lehenengoa.**– Ana Belén Díaz Roca andrea Osakidetza Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuko Digestio Aparatuko Atalburu Sanitario (Endoskopia) izendatzea aldi baterako.

**Bigarrena.**– Aldi baterako izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean xedatutakoarekin bat etorri, eta 2019ko 2020ko urriaren 12tik aurrera izango ditu ondorioak.

**Hirugarrena.**– Izendatutako pertsonak, aipatutako epea amaitutakoan, lanpostua utziko du, egoera horren luzapena onartu ezik, betiere Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoaren arabera.

**Laugarrena.**– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kargutik kendu ahal izango da, alde aurretik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoarekin bat etorri.

**Bosgarrena.**– Ebazpen hau interesdunari eta Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuko Zuzendaritza Medikoari eta Langileen Zuzendaritzari jakinaraztea.

**Seigarrena.**– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-ko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bilbao, 2020ko urriaren 8a.

Bilbao-Basurtoko ESIko zuzendari gerentea,  
EDUARDO MAIZ OLAZABALAGA.